

DOMUND 2023

“Oinak bidean, bihotza adorez”



BIHOTZA
ADOREZ

CORAZONES
ARDIENTES
PIES
EN CAMINO

#DOMUND
2023ko urriaren 22
22 octubre 2023

**DELEGACIÓN DIOCESANA DE MISIONES
MISINOETARAKO ELIZBARRUTIKO ORDEZKARITZA**

Plaza Nueva, nº 4 – 2º 48005 BILBAO - Tlf. 94 401 36 99

E-mail misiobi@bizkeliza.org

“Oinak bidean, bihotza adorez”

Adiskide hori:

Udako atsedenen ostean, kurtso barriari indarbarrituta ekingo deusagu, Misinoen Munduko Egun barri bati begira jarritz.

Aurton, urriaren 22an -domekaz- ospatuko da **DOMUND** eguna, goiburu honegaz: **“Oinak bidean, bihotzak adorez”** (Ik. Lk 24, 13-35). Goiburu honek beste pasarte hau gogoratzen deusku: Jesus berbiztua Emauseko ikasleei agertu jake eta euren bihotzean zerbait mobidu da. ‘Munduaren azken mugetaraino’, gaur egun be bidez bide gertatu daitekeen topaketa da. Horixe da *missio ad gentes* dalakora atara diran misiolarien bokazinoa. Euren bizitzak eta lanak arrastoa izten dau ezagutzen dabezanengan; www.domund.es gure web orrialdeak ikusi daikegu nortzuk diran eta zelan lan egiten daben; orrialde berean aurkituko dozuek egun honetarako prestatu doguzan lagungarriak.

Honako honen bitartez, dei egiten deusuegu, Eleizaren misinoan ardurakide sentitu zaitezen. Edozein keinu, laguntza edo otoitzek, txikiena bada be, egundoko eragina dau Eleizaren misino-eginkizunean eta guztiz lagungarria da eurek egiten diharduen lan ebanjelizatzailea aurrera eroateko.

Agur bero bat,

Feli Martín

Misinoetarako Ordezkaria

“Oinak bidean, bihotza adoretz”

Gauza bat da entzutea eta beste bat ikustea. Jakitea da bat, eta ezagutzea bestea. Konta diezaguketuen ezerk ez du zerbait zuzenean bizitzearen esperientzia berdintzen. Banuen Afrikako euskal apaizen entzuerak. Banekien zerbait beren historia eta lanez. Banuen Manuel Uncitik idatzitako “Aventura en Katanga” liburuaren berri, nahiz eta irakurri gabe izan. Baina Kongoko Errepublikako Demokratikorako bideari ekin eta, Kristo orrialde haien bidez hitz egiten hasi zitzaidanean, nire bihotza piztu eta adoretu egin zen, aurtengo Domund eguneko goiburua dioenez. Hara iritsi eta gure anai eta arreba misiolariak hango pertsonekin batera bizi eta egiten dituztenak ezagutu eta bisitatu nituen. Eta pertsona horiek eman eta eskaini izan duten guztiaren zati bat ezagutzean, nire bihotza altxatu egin zen.

Kristo da misio-ibilbidearen jatorri eta zerumuga. Jaunari bere idazkiak azaltzen eta bere ogia zatitzen utzi diotenen, Hark bare ditzan, beren bihotz akituak irekitzen dizkiotenen, bere sentimenduekin bat egiteko urratsa eman dute. Eta era bateko eta besteko hainbeste sufrimenduk Jesusi eragiten dioten atsekabe bera sentitzen dute, baita beldur direnak askatzeko bere nahia ere, edo azpiratutako eta ahaztutako hainbeste jenderi eragindako iraina deuseztatzeko gogoak. Eta badira, beren bihotza aldatuta ikusteaz gainera, misioaren deia ere antzemanda, hauxe esaten dutenak: “esaidazu nora, eta hara joango naiz”. Eta bideari ekiten diote. Eta helmugara heltzean, Kristo aurpegi ezezagun eta elkartze berrietan agertzen zaie, eta ezagutzeko gauza dira, badakite-eta bidelagun dutena. Eta mundua sutan jartzera etorri zen Jesus honen sua zabaldu egiten da eta pertsonak eta lurra eraldatu egiten ditu. Eta Kristok, bidean, ikasle berriak erantzen dizkio taldeari. Hauxe da misioaren esperientzia, Eliza bizidunaren ezinbesteko ezaugarri eta baita bere bizitasunaren termometro ere. “Zoazte mundu guztian zehar eta hots egin berri ona izaki guztiei” (Mk 16, 15) esan zigun Kristoren agindua zehazten duen misioa.

Kristo, sermoi eta katekesi eraginkorren bidez baino gehiago, maitasun eta zerbitzuzko eguneroko keinuen bidez iristen da: bisita gaixorik dagoen norbaiti, laguntasuna premian dagoenari, patxadaz entzun egoera larrietan... Eta, jakina, aurreko guztia egiteko guztiz baliagarri den irribarre gozoan iristen da. Pertsonen bizi-baldintzak hobetzeko xedez garatzen diren egitasmoen bitartez ere aurkezten da: laguntasuna ahalmen-urritasunen bat dutenei, osasun-zerbitzuak, eskolak eta lanbide heziketa, harrera familia babesik ez duten umezurtzei... Horrela iristen da Kristo ezagutu ez duten pertsonen bizitzara, batzuetan gelditzeko, besteetan bakarrik arrastoa uzteko. Eta horrela egiten du bidea misioak, gutxi-asko sakonak, gutxi-asko eraginkorrak diren arrastoak utziz, azken batean, Kristorengandik etorri gero, poz, eskuzabaltasun, erruki

eta askapenez beteriko esperientziak uzten dituzten arrastoak. Bake eta salbamenezko bideak argitzen dituzten arrastoak dira, sarritan gerra-tankeek, 'Toyota armatuek' eta negozio dirudunak sustatzeko herrialdetik ateratzen diren mineralak garraiatzen dituzten kamioi erraldoiek utzitako lorratz gogorrekin gurutzatzen diren bidexka umilak argitzen dituzten arrastoak.

Utopiaren ideia jakin bat buruan, horren bila aurrera egin gura duenak bizkor gal dezake gogoia, aurrerapenik ikusi ezik. Baina misioan Jesusen atzetik jarraitzen dugunok ez gara hain erraz uzkuratzen, gure zerumuga suntsiezia baita: maitasun emankorra inoiz ez dela fruiturik gabe gelditzen dakitenen itxaropena da.

Kristo berpiztu da eta horregatik gizadia salbatuta dago. Baina oraindik ez da Bera gutako bakoitzarengan dena izango deneko egun hori. Eta osotasun horren zain gaudela, lagun asko eta asko oinazetan da historiaren zapalgailuaren biktima. Kristok leku guztietara iritsi gura du alferrikako zoritxarrak saihesteko, ahal den guztietan mina arintzeko eta beste inon jasoko ez dutenei itxaropena emateko. Eta Hari laguntzeko ezinbesteko dira gure misio-tradizioa jaso eta bizirik eutsiko dioten bihotz adoretzu eta sutuak. Ez da nahitaezkoa ministerioa jasotzea Kristoren auzia hedatzeko. Nahikoa da Kristo ezagutzea eta Berarekiko bategitean bihotza piztu egin dela sentitzea. Izan gaitezen Haren bidelagun, bideak nora garamatzen arduratu gabe.

Esker-emate zoriontsua 2023ko Domund egunean.

✠ Joseba Segura Etxezarraga
Bilboko gotzaina

“Oinak bidean, bihotza adoretz”

SARRERAKO OHARRA

Domund eguna da Misinoen Munduko Eguna. Jesus Jaunak dei egiten deusku gure erosotasunak alde batera itzi eta bidera atara gaitez, oraindik Jainkoaren maitasunaren Barri Ona ezagutzen ez dabenengana joteko. Eukaristia hau eta domekerokoak ospatzeak bihotza adoretu deigula maitasun horren iragarle izan gaitez.

OHARRAK BERBALDIRAKO

“**Oinak bidean, bihotza adoretz**” goiburua. Emauseko ikasleek bizi izandako esperientziak sustatzen dau fedea, ebanjelizatzea eta misinoa. Nire bizitzan Jesusegaz bat egitean, haren berbak eta agintzariak entzutean, bihotza adoretz beteten da, sutu egiten da (Xabierko san Frantzisko misinoen zaindariaren hainbat ikonografiatan, sutan dan bihotza agertzen da). Batez be, ogia zatitzean, Eukaristian, sustatzen da sen ebanjelizatzailea eta hortik hartzen dogu adorea bideari lotu eta Barri Ona iragartera atarateko.

Egundoko barri on hori ezin dogu bakarrik geuretzat gorde, ezinbestekoa da beste batzuei be aurkeztea. Horixe egiten dabe misiolariak misinoko lurraldeetan, oraindik Ebanjelioa ondo ezagutzen ez daben lekuetan. **Baina neuri be badagokit Eleizaren hazkunderako dan jardunbide hori: “Zoaze mundu guztira eta iragarri Barri Ona izaki guztiei” (Mk 16, 15).**

Lehenengo irakurgaia. “Neu naiz Jauna, ez da besterik; ez da ni beste jainkorik” (Is 45, 5). Ziro lez, Jaunak eskutik garoaz, eta gure bateo-egunean, bereizgarria jarri euskun, hau da, hautatuak gara eta Jainkoak gidatzen gaitu danek (Ekialdetik Mendebalder) egia horren barri izan daien.

Bigarren irakurgaia. Domund egunez dei egiten jaku -Paulok Timoteo eta Silvanogaz batera egiten dauan lez- eskerrak emon deioguzan Jainkoari misinoagaitik eta misiolariengaitik, euroi esker sortzen da-eta alkarte asko -esate baterako Jesukristok salbatutako Jainkoaren familia dan Eleizaren eremu dan Tesalonikakoa- eta euren mantenu materiala eta espirituala ziurtatzen.

Barri Onaren iragarpena, barriketa huts eta berbaldi eder ez ezik, Egiaren, Espiritu Santuaren indarraren adierazpenaren transmisinoa dala be esaten jaku eta iragarpen hori gure anai eta arreben aldeko maitasun, emote eta eskuzabaltasunaren bidez egiten dala.

Ebanjelioa. Misiolariarengan ez dago itxurakeriarik; benetan daki Jesus Jainkoaren bidea dana eta bide hori aurkezten dauana, egia dana eta danak hartzen dituala, nor zer dan begiratu barik. Askotan, Jainkoaren maitasunaren iragarpena hartzailearen aurrean eragozpenik jarri barik egiten da. Gizakion zuzentasun eta arauen aurrean, Jesusek Jainkoaren zuzentasuna ezarriko dau. Jainkoari emon Jainkoarena dana. Eta Jainkoaren aintza gizakiek bizia izan daiela da (Lyoneko san Ireneo).

JAINKOAREN HERRIAREN OTOITZA

-Barri Onaren iturri eta ondorio dan Eleizaren alde. Jainkoaren maitasunaren Barri Onak itxaropenez bete daizan gizon eta emakume guztiak. ***Eskatu deiogun Jaunari.***

-Frantzisko aita santuaren, gotzain eta artzainen, ebanjelizatzaileen eta misiolarien alde. Jainkoaren errukiaz beteta, buru-belarri jardun daigun Kristoren Erreinua gauzatu daiten. ***Eskatu deiogun Jaunari.***

-Politikan eta herrien gobernuan erantzukizuna dabenen alde. Euren bihotza Egiari zabaldu deioen, askatasun erlijiosoa errespetatu eta behartsuenen onaren alde jardun daien. ***Eskatu deiogun Jaunari.***

-Zailtasunak jasaten dabezan eta nekatuta eta adore barik bizi diran misiolarien alde. Gure otoitz eta alkartasunak eurak sendotzeko balio daian. ***Eskatu deiogun Jaunari.***

-Oraindik Jesukristo ezagutzen ez dabenen alde. Euren begi eta bizitzak federa zabalduko dabezan lekukoak egon daitezkan. ***Eskatu deiogun Jaunari.***

Entzun, Aita ona, Eleizaren eta Lurreko herri guztien beharrizanen alde erreguka diran zure seme eta alaben otoitzak. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

ESKAINTZA

Misioen Munduko Eguna, DOMUND Eguna ospatzeak otoitza, hausnarketa eta elkartasuna Jesusek Elizan duen misioan gogotsu parte hartzeko aukera direla berrestera garamatza. Ogi eta ardoarekin batera, Haren Maitasunaren lekuko izateko Eliza osoak egiten duen lana eta ahalegina aurkeztuko ditugu.

OHARRA DIRUA BILDU AURRETIK

Batuko dugun diruarekin Aita Santuaren ardurapeko Misio-egintzak garatzen lagunduko dugu, zerbitzatzen dituzten herri eta elkarten behar espiritual eta materialei aurre eginez. Eskuzabaltasunez jokatzeari lekuko izateko bide da eta gure ekarpena laguntza eraginkor da Berri Ona "lurreko mugaldetaraino" hots egiteko.

Eskerrik asko eskuzabaltasunez jokatzeari.

AGUR

Domund Eguneko Eukaristian parte hartzeak gure kristau izatea misio-ikuspuntutik bizitzera garamatza. Senti gaitezten misiolari, gaur bereziki, berpiztuaren lekuko izanik Berri Ona bizi egiten diharduten gizon eta emakumeekin batera. Gure misio-lana ez dadila Domund Egunaren oroitzapen huts izan, eta bat egin dezagula pertsona horiekin etengabeko otoitz eta laguntzarekin.

ELEIZBARRUTIAREN DIRU-EKARPENA – OMP

Urtean zehar, misinoakaz lankidetzan jarduteko hainbat bide dago. Aita Santuak, bere aldetik, adiera hau emon gura deutse Domund eguneko munduko kolekta guztiei: Misinoko lurralde guztiei eusteko izan daitezala, katolikotasunaren, hau da, unibertsaltasunaren zeinu lez.

Aita Santuaren ardurapeko Misiolari Egintzek, OMP deitzen diranek, laguntzen banaketa zuzena bermatzen dabe, munduko Eleiza guztiek gutxieneko laguntasuna jaso daien. OMP erakundeko Batzar Nagusiak, Aita Santuaren aginduz, beharrianak zeintzuk diran ikusi eta laguntzak banatzen ditu. Ekarpenen zati handiena Misinoko lurraldeetako ohiko beharrianetara zuzentzen da. Aparteko egitasmoak be babesten dira, ebanjelizazinoa eta giza sustapena aurrera erodateko. Gehiago jakiteko, 2021eko oroitza-txostenera jo [esteka](http://www.omp.es) www.omp.es

Domund eguneko laguntzei esker, Eleizak munduko biztanleriaren erdiari, hain zuzen be Misinoko lurraldeetan bizi danari, eskaintzen deutso bere mezua.

Misinoetarako Eleizbarrutiko Ordezkaritzatik esker ona adierazo gura deusuegu urtean zehar Aita Santuaren ardurapeko Egintzen alde egiten dozuen guztiagaitik.

Taldeek, parrokiek, kongregazioek eta partikularrek egiten douzuezan dohaintza eskuzabalen barri dogu eta laguntza horrek herrialde desbardinetan jarduten daben misiolarien beharrian materialei aurre egiteko balio dauala esan gura deusuegu.

Gure Eleizbarrutiko 160 misiolarik lanean dihardue 47 herrialdetan, hango alkarteetan biziz eta jardunez, Barri Ona iragarritz, Jainkoaren Erreinua eraikiz.

Posta elektronikoz bialduko dogu parrokia guztietara 2022eko sarreren txostena.

OHARRA: dohaintzak ze parrokia, alkarte erlijioso, ikastetxerenak... diran ondo jakiteko, arren eskatzen deusuegu GAIAN honako hau ipinteko: **lehenengo herria** eta **ondoren parrokiaren, ikastetxearen... izena.**

KUTXABANK-BBK _____ ES52 2095 0000 76 2000027102

LABORAL KUTXA _____ ES22 3035 0019 90 0190009418

BBVA _____ ES89 0182 1300 11 0014915565

Zuon bankuaren app-an **Bizum bidez 00500** dalakoan egin daikezue ekarpena.

Misiolari guztien eta OMP erakundearen izenean, **ESKERRIK ASKO!**